

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernuak milioi bat euro bideratu ditu unibertsitateko tituludunek nazioartean praktikak egiteko

6 eta 12 hilabete arteko iraupena izango duten ehun beka emango dira gutxienez

Martes, 26 de julio de 2011

Nafarroako Gobernuak milioi bat euro bideratzea erabaki du gaur unibertsitateko tituludunek nazioartean praktikak egin ditzaten. Beken modalitate berria da, eta, horien bidez, Foru Gobernuaren asmoa Nafarroako ikasleak kanpora ateratzen laguntzea da, hizkuntzen ezagutza eta lanbide aukerak areagotzeko.

Zehazki, onetsitako erabakiaren arabera, beka horiei esker, Nafarroako 100 eta 120 unibertsitateko tituludunek enpresetan, ikerketa zentroetan, GKEetan, enbaxadetan, kontsuletxeetan, Espainiako Turismo Institutuaren bulegoetan eta Merkataritza Ganberetan laneko praktikak egin ahal izango dituzte, baina betiere Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetan.

Bekak, gutxienez ere, 6 hilabetekoak izango dira eta, gehienez ere, 12 hilabetekoak. Aurreikusitako denaren arabera, datozen asteetan egingo da deialdia.

Beken modalitate hori Nafarroa Bekak programa orokorraren parte da; Gobernuak, 2011rako, krisiari aurre egiteko Planean jasotako neurrietako bat ere bada.

Ikasteko eta lan egiteko Nafarroa Bekak

Nafarroa Bekak 2008-2011ko Nafarroako Nazioarteko Planarekin batera abiatu den ekimena eta Foru Erkidegoa nazioartera zabaltzen laguntzeko funtsezko bitartekoak dira. Beken filosofia hau da: gazte



horiek jasotzen duten ezagutzak Nafarroaren etorkizuneko garapenerako balioko du.

Nafarroa Bekak programak hiru deialdi izan ditu orain arte: atzerriko ikastetxe bikainetan masterrak egiteko deialdi orokorra, ondoren, jasotako prestakuntza eta talentua Nafarroara ekartzeko; Fulbright Nafarroa, Estatu Batuetan master programak egiteko beka ematen dituen; eta Nafarroa Bekak Enpresa deialdia, Nafarroan dauden enprekin kontratu bidez lotuta dauden profesional gazteentzat. Hiru deialdi horiez gain, orain, nazioarteko praktiken programa egongo da.

2009an Nafarroa Bekak programa abian jarri zenetik, espediente akademikorik onenak dituzten Nafarroako berrogeita hamar gazte baino gehiagok lortu dituzte beka. Horiei esker, Georgetown, Berkeley, Sorbona edo Melbourne bezalako unibertsitateetan ikasteko aukera izan dute.

Aurreikusitakoaren arabera, bihar, asteazkena, beste 30 beka emango dira atzerrian masterrak egiteko. Hori Nafarroa Beken hirugarren promozioa izango da.